

HAMARGARREN ORDENANTZA FISKALA

AGIRI ADMINISTRATIBOAK LUZATZEARI BURUZKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. ARRAZOIA ETA IZAERA.

1. Artikulua.- Bizkaia Lurralde Historikoko 5/89 Foru Arauak, ekainaren 30ekoak, horrek arautzen baititu Toki Ogasunak, emandako ahalmenak erabiliz, Udal honek udalerriko agiri administratiboak luzatzearen gaineko Tasa ezartzen du, eta hori Ordenantza Fiskal honek arautuko du, hain zuzen, horri dagozkion arauak aipatu Foru Araueko 20. artikuluan aurrikusten baitira.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

2. Artikulua.-

1.- Tasa honek jarduera administratibori dagokion zergapeko egitatea zergapetzen du, horrek, alderdi baten eskariz, Udal Administrazioak izapidetzen duen edozein agiri eta espediente mota hartzen du barne.

2.- Ondorio horietarako, edozein agiri administratibo alderdi baten eskariz izapidetua izan dela ulertuko da partikular batek eragindakoa izan bada edo horren onuran izan bada, nahiz eta interesatuaren esanbidezko eskaririk egon ez.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. Artikulua.- Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak eta Lurralde Historikoko Zergaren gaineko Foru Arau Orokorreko 34 artikuluan agertzen diren Entitateak, baldin eta agiri edo espediente bat izapidetzea eskatzen badute beren intereserako.

IV. ARDURADUNAK

4. Artikulua.-

1.- Zergaren gaineko Foru Arauaren 40 eta 41 artikuluan aipatutako pertsona fisiko eta juridikoek, subjektu pasiboek dituzten zerga-obligazioen gainean, solidarioki erantzungo dute.

2.- Ordezko erantzunkizuna izango dute, bai sozietateetako administratzaileek, bai sindikoek, bai porrotetako, lehiaketetako, sozietateetako eta orokorrean edozein entitateetako kontuhartzaile edo kitatzaileek, Zergaren gaineko Foru Arauaren 42. artikuluan adierazitako kasuetan eta eskumenetan.

V. ZERGAREN KUOTA

5. Artikulua.-

1.- Zergaren kuota, izapidetu behar diren agiri edo espedienteen izaeraren arabera seinalatutako kopuru finko batek zehaztuko du, hurrengo artikuluan agertzen den tarifaren arabera.

2.- Tarifaren kuota izapidegintza osoari dagokio, une bakoitzean izapidetzen den agiri edo espedientearena, horren izapidegintzaren hasieratik amaitu bitartean, hor barne sartzen dira emandako ebazpenaren ziurtapena egin eta interesatuari jakinaraztea.

6. artikulua. TARIFA

TARIFEN KOADROA

TARIFEN KOADROA

1.- Lurzoruaren sailkapenari eta higiezin hirigintza kalifikazioari buruzko ziurtagiria eta lursailen edo eraikinen hirigintza kalifikazioko zedulak ematea (eranskin grafikoak eta literalak barne)	27,00
2.- Eraikinen hirigintza egoerari eta kaleen izenari edo higiezin zenbakiei buruzko ziurtagiria	10,00
3.- Plano topografikoaren fotokopia paper arruntan edo formatu digitalean:	-
DIN-A-3 bitarteko neurrian (kolore bakarrean)	2,00
DIN-A-3 bitarteko neurrian (koloretan)	2,00
DIN-A-2 edo neurri handiagoan (kolore bakarrean)	4,00
4.- Eraikinaren edo jardueraren planoaren fotokopia paper arruntan edo formatu digitalean (kolore bakarrean):	
DIN-A-3 bitarteko neurrian	4,00
DIN-A-2 edo neurri handiagoan	7,00
5.- Lur eremuaren planoaren inprimaketa paper zurian eta hainbat tintarekin:	
DIN-A-4 neurrian	3,00
DIN-A-3 neurrian	5,00
DIN-A-3 baino neurri handiagoan	16,00
6.- HAPOn dokumentazio grafikoaren inprimaketa. Idem kartografia:	
DIN-A-4	4,00
DIN-A-3	6,00
Handiena (Gehienez DIN-A-0)	25,00
7.- Udal kartografia DGN formatu digitalean emateagatik. Idem HAPOn planoekin (plano oso bakoitzeko):	
1:1500 eskala (0,30 €/disketea) plano bakoitzeko	7,00
1:1500 eskala (2,50 €/CD) plano bakoitzeko	7,00
DXF edo DWG formatuetara bihurtzeagatik, plano bakoitzeko	2,00
8.- Sare geodesikoari, nibelazio puntuei, triangulazioari, doitasun poligonoei eta nibelazio kota geometrikoei buruzko aipamenak (aipamenaren eta krokisaren fotokopia barne) unitate bakoitzeko	3,00
9.- Hirigintza arauak euskarri digitalean emateagatik	24,00
10.- Udalerriko kale izendegia, edo udalerri osoko kartografia osoa edo bereizitako geruzak DGN formatu digitalean emateagatik:	
Kale izendegia	39,00
Udalerria	274,00
11.- Dokumentu administratiboen fotokopiak egiteagatik edo formatu digitalean emateagatik:	
Fotokopia 1 edo 2 egiteagatik edo fitxategi 1 edo 2 digitalizatzeagatik	-
2 fotokopia baino gehiago egiteagatik edo 2 fitxategi baino gehiago digitalizatzeagatik	0,25
12.- Lursailen planoen inprimaketa	-
DIN A4	4,00
DIN A3	6,00
DIN A0	25,00
13.- Administrazioko kontratazio prozeduran sartutako proiektuen planoen fotokopia egiteagatik edo formatu digitalean emateagatik	5,00

14.- Hirugarrenek eskatuta Udaltzaingoak egindako txostenak emateagatik:		
14.1.- ISTRIPUEI buruzko TXOSTENAK emateagatik		150,00
14.2.- IZAERA ZIBILEKO BESTE TXOSTEN BATZUK emateagatik		40,00
15.- Katastroko edo jardueretako udal datu baseen informazio alfanumerikoa (erregistroaren arabera)		1,00
16.- Katastroaren zedula emateagatik		4,00
16B.- Katastroa Erregularizatzeko edo Aldatzeko espedienteak izapidetzeagatik tasa		60,00
17.- Basauriko Udalaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzura dauden pertsonak hautatzeko prozesuetan azterketa eskubideengatik ordaindu beharreko tasak: lehiatzen den plazari dagokion taldearen arabera zehazten da tarifa, taula honen arabera:		
	A1 taldea	23,00
	A2 taldea	18,00
	C1 taldea	23,00
	C2 taldea	9,00
	E edo AP taldeak	5,00
Ez dute tasa ordaindu beharko langabezia daudenean (enplegu eskariaren txartela aurkeztu beharko dute egoera horretan daudela egiaztatzeko) edo barne sustapeneko txandan sartzen direnean.		
Tasa modu nominalean eta banan-banan ordainduko da izangaiek aukeratzen duten plaza bakoitzeko.		

VI. KUOTAREN HOBARIAK

7. Artikulua.- 1/2004 Foru Arauaren II. Tituluan aipatzen diren irabazi asmorik gabeko erakundeek %50eko hobaria izango dute, baina inguruabar hori egiaztatu egin beharko dute.

VII. SORTZAPENA

8. Artikulua.-

1.- Tasa sortzen da, eta beraz ordaintzeko obligazioa sortzen da, zergari loturik dauden agiri eta dokumentuen izapidegintzari hasiera ematen dion eskaria egitean.

2.- Bigarren artikuluko 2 zenbakian aipatzen diren kasuetan, udal iharduera ofizioz hasteko inguruabarrak ematearen ondorioz gertatzen bada sortzapena edo interesatuak aurretik eskatu gabe hasten bada bainan haren onuran suertatzen denean.

VIII. AITORPENA ETA SARRERA

9. Artikulua.-

1.- Tasa autolikidazio erregimenean galdatuko da.

2.- Udal Administrazioak luza ditzakeen ziurtapenak edo agiriak, horiek Auzitegi edo Epaitegietako ofizioei jarraiki egiten direnean eta edozein delarik ere auzi mota, ez zaio hura inori entregatu edo igorriko aurretik zergari dagokion kuota ordaintzen ez duen bitartean.

IX. HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

10. Artikulua.- Zergari buruzko arauhauste eta horien gaineko kalifikazioari dagokionez, hala nola horien gainean kasu bakoitzean jarri beharreko zehapenei buruz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 186. artikuluan eta ondorengoetan xedatua dagoena hartuko da kontutan.

X.- XEDAPEN GEHIGARRIA ADMINISTRAZIOEN ARTEKO ELKARRERAGINGARRITASUNA

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen duenez, dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko eskubidea dute interesdunek. Basauriko Udalaren zerbitzu/sail eskudunak elektronikoki kontsultatu edo bildu ahal izango ditu dokumentu horiek, datuen bitartekotza-plataformen edo horretarako gaitutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, izapideak egiteko behar diren dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango zaio interesdunari.

2. Zilegi da datu pertsonalen tratamendua egitea, interes publikoaren aldeko eginkizun bat betetzean edo Basauriko Udalarari emandako botere publikoak gauzatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Datuak minimizatzeko printzipioarekin bat etorriz, datu egokiak, beharrezkoak eta ezinbestekoaren neurrira mugatuak bakarrik eskatuko dira, datu horiek tratatzeko helburuen arabera (DBEO, 5.1.c artikulua).

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi da, eta egin zaizkion aldaketekin batera, 2008ko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko da, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua, 2010eko ekainaren 24ean, 2011eko azaroaren 11ean, 2012eko azaroaren 19ean, 2017eko urriaren 26ean osoko bilkuran, 2018ko urriaren 25ean osoko bilkuran, 2019ko urriaren 30ean osoko bilkuran, 2020ko urriaren 29an bilkuran, 2021eko urriaren 28an bilkuran eta 2022ko urriaren 27an bilkuran.)